



ATAUNgo UDALA

ATAUNGO UDALA: UDARAKO BEGIRALEAK KONTRATATZEKO OINARRIAK 2015

1. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen helburua Ataungo Udalak antolatzen dituen "Gaztetxoan Udaleku Irekirako" begiraleen aldi baterako lan-kontratuak egiteko deialdia arautzea da.

Kontratuaren iraupena, gutxi gorabehera, hilabetekoa izango da (udalekuaren iraupena) eta lanaldia, Udalak aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontuan izanik ezarriko duena izango da.

Aukeratuko den begirale kopurua, aldiz, izena ematen duen hurren kopuruaren arabera izango da. Horrenbestez, deialdi honekin zerrenda bat egingo da eta izangaiak lortutako puntuek emango dute zerrenda horren hurrenkera.

2. Prozesuan parte hartzeko baldintzak.

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete behar dira:

1. 18 urte beteta izatea, izena emateko epea bukatuko denerako.
2. Aisialdiko begirale titulua izatea.
3. Ataungoa izatea eta bertan bizitzea (edo inguruko herrietan).
4. Oinarritzko ikasketak (LH eta DBH) egindakoak izatea.
5. Euskaraz ongi ulertu eta hitz egitea.
6. Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik ez izatea.
7. Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espeditente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

3. Eskabideak aurkeztea.

Epea: maiatzaren 11tik 20ra.

Lekua: Ataungo udaletxeko bulegoetan. Orduetgia: 9:00etatik 14:00etara.

Halaber, aukera izango da, azaroaren 1992ko 26 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 38.4 artikuluan araututakoari jarraiki, eskaerak posta-administrazioetan aurkezteko. Horrela egiten bada, eskaerak Udaleko alkate-presidenteari zuzenduko zaizkio kartazal ireki batean, posta bulegoko funtzionarioak data eta zigilua jarri diezaion, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Baldintza hori betetzen bada soilik onartuko da posta-bulegoko aurkezpen eguna Erregistro Orokorreko sarrera-data gisa.

Baita ere, www.ataun.eus web gunearen bitartez eskabidea aurkeztu ahal izango da.

4. Aurkeztu beharreko agiriak.

- Eskaera orria beteta (www.ataun.eus web gunean zein Ataungo Udaleko bulegoetan egongo da eskuragarri).
- Nortasun Agiriaren fotokopia.



ATAUNgo UDALA

- Errolda-agiria.
- Egindako oinarrizko ikasketak egin dituela egiaztatuko duen agiria.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatuko dituzten agirien kopiak.

5. Kalifikazio-epaimahaia.

Merezimenduak baloratuko dituen epaimahaia osatuko dute: Ataungo Udaleko alkatea; Ataungo Udaleko Kultura batzordeko kide bat; eta Kultura zinegotzia. Idazkari lanetan, Ataungo Udaleko gaztedi dinamizatzailea arituko da.

6. Hautaketa-prozesua.

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

* Titulazioa:

- Aisialdiko zuzendari titulua:
 - ✓ Euskaraz burutu bada: 6 puntu
 - ✓ Beste hizkuntza batean burutu bada: 5 puntu.
- Aisialdiko begirale titulua:
 - ✓ Euskaraz egin bada: 2 puntu

* Ikasketak:

- Unibertsitateko ikasketak (gizarte arlokoak): 2 puntu
 - . Irakaskuntza
 - . Gizarte hezkuntza
 - . Pedagogia / psikologia / psikopedagogia
- Goi mailako zikloak (gizarte arlokoak): 1 puntu
 - .Gizarte eta kultur animazioa
 - . Gizarte integrazioa
 - . Haur-hezkuntzako

* Euskara:

- 3HE / EGA / baliokidea: 3 puntu.

* Lan-esperientzia:

- Udaleku itxietan zuzendari bezala esperientzia: 15 eguneko puntu 1, gehienez 4 puntu.
- Udaleku itxietan begirale bezala esperientzia: 15 eguneko 0,5 puntu, gehienez 2 puntu.
- Udaleku irekietan zuzendari bezala esperientzia: udaleku bakoitzeko puntu 1, gehienez 4 puntu.
- Udaleku irekietan begirale bezala esperientzia: udaleku bakoitzeko 0,5 puntu, gehienez 2 puntu.



ATAUNgo UDALA

* Langabezia: azkeneko urtean (2014ko ekainetik) lanik gabe egondako denbora aintzat hartuko da. Horretarako, lan ibilbidearen gaineko agiria (lan-bizitza) aurkeztuko da eta bertan agertutako lan egindako egunen arabera banatuko dira puntuak honela:

- 2014ko ekainaren 1etik izena emateko epea hasi arte 60 egun baino gutxiago lanean eman dutenek 3 puntu jasoko dituzte.
- 61 egun baino gehiago eta 120 egun baino gutxiago lanean eman dutenek, 2 puntu jasoko dituzte.
- Azkenik, 121 egun baino gehiago eta 180 egun baino gutxiago lanean eman dutenek, puntu 1 jasoko dute.

7. Izangaien zerrenda.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako emaitzen batura izango da.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1. Lan esperientzia
2. Ikasketa-mota
3. Adina

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahaiak lortutako puntuazioaren ordenaren arabera zerrenda argitaratuko du Ataungo Udaleko iragarki taulan eta Web orrian, eta onarpen proposamena igorriko dio dagokion organoari, aurretik aipatutako kontratazioak egiteko.

Puntuazioaren arabera kontratatuko den azken izangaia begirale laguntzaile izango da eta bere lana izango da beste taldeei une zehatzetan laguntzea eta ordezkapenak egitea.

